



MURALES LIAN



IKUSMIRA

PARETEK OIHU ETA BESARKADA, ATXONDON

Atxondo Harrera Herria 2018an sortu zen. Herritarrek jositako sarea Euskal Herrira iristen diren pertsona migratzaileei harrera egiteko, herria emateko. Lo egiteko tokiak ez ezik, duintasunez bizitzeko laguntza ematen diete; laguntza juridikoa, osasunerako eskubidea, formakuntzarako aukera, inklusioa, kultura aniztasunaren hariak. Izan ere, lotarako tokiak bakarrik ez du pertsona pertsona egiten. Orain Atxondo Harrera Herrikoak Udalaren parean jarrita daude, migratzaileek orain arte lotarako leku zuten Axpe aterpetxea itxi egin duelako Udalak, hainbeste pertsona kale gorrian utzita. Kaleak hotzak dira, paretak ere

izan daitezke hotzak. Edo ez. Murales Lianek Euskal Herriko toki askotan jarri ditu paretak sutan, builaka, injustizia sozialek sortzen duten minetik oihuka. Atxondoko Apatamonasterioko pilotalekuko paretak ere oihuka jarri du Murales Lianek. Baina oihuaz gain, besarkada eskaintzen du paretak horrek, harrera eskaintzen duelako, herria ematen duelako. Egunotan kalean lotan ari diren herritarrek garbi daukate; Atxondon ez dute lotarako toki bakarrik topatu, bizitzeko tokiak topatu dute. Horregatik, kalean lo egin behar badute ere, Atxondon nahi dute herria izan. Amagoia Mujika Telleria